Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko urtarrilaren 17a, osteguna — 12 — Jueves, a 17 de enero de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA

*Gipuzkoako udalerrietan herritarren partaidetza sustatzeko diru laguntzen 2019ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabakia hartu zuen 2019ko urtarrilaren 8an eginiko bilkuran:

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015-2019 aldirako Kudeaketa Plan Estrategikoaren barruan zehaztu dituen lehentasunezko helburuen artean dago Gipuzkoako gobernua berrasmatzea, lurraldearen garapena eta eraldaketa bultzatzen duen motorra izan dadin. Hain zuzen ere, Plan Estrategikoaren 13. helburuak honela dio: «Herritarrekiko harreman irekia finkatzea eta parte hartzeko eta komunikatzeko bide berriak irekitzea».

Herritarren partaidetza kudeaketa publikoan txertatzeak konfiantza sortzen laguntzen du; izan ere, gobernuak indartu egiten dira, politika publikoak legitimatu, aniztasun soziala integratzen da, interes sozialak agenda publikoan sartzen dira, herritarrek bizitza publikoaren antolaketa prozesuetan parte hartzen dute, eta gizarte zibilaren funtzioa sendotu egiten da.

Ondo dakigu zein garrantzitsuak diren udalak, herritarrengandik gertuen dauden erakundeak direlako, eta, horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak, udalen lana sustatzeko eta errazteko, urteak daramatza tokiko erakundeei laguntzen, udal esparruan sustatzen diren partaidetza prozesuak ekonomikoki babesten.

Diputatuen Kontseiluak 2018ko urtarrilaren 30eko bileran onartu zituen Gipuzkoako herritarren partaidetza sustatzeko udalei zuzendutako diru laguntzen oinarri arautzaileak. Oinarri arautzaile horietako zortzigarren oinarrian xedatutakoaren arabera, diru laguntzak emateko prozedura organo eskudunak onartutako deialdiaren bidez hasiko da, zeina Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko baita.

Kontuan hartuta esperientzia ona izan dela udal mailako bizitza politiko eta instituzionalean herritarren partaidetzako kultura sustatzeari dagokionez, eta udal eta eskualde esparruetatik jasotako eskakizunei erantzuteko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen du diru laguntza horiek ematen jarraitzea. Hori dela eta, erabaki honen bidez onartzen da Gipuzkoako udalerrietan herritarren partaidetza sustatzeko diru laguntzak emateko 2019ko deialdia.

Aipatutako diru laguntza lerroa Diputatuen Kontseiluak 2017ko uztailaren 26ko bileran onartutako 2017-2019 Diru Laguntzen Plan Estrategikoaren barne daude.

Horiek horrela, Diputatuen Kontseiluak, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren,

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA Y COMUNICACIÓN CON LA SOCIEDAD

*Convocatoria 2019 de las ayudas para fomentar la participación ciudadana en los municipios de Gipuzkoa.*

El Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 8 de enero de 2019, adoptó el siguiente acuerdo:

La Diputación Foral de Gipuzkoa establece como uno de los objetivos prioritarios dentro del Plan Estratégico de Gestión 2015-2019 reinventar el Gobierno de Gipuzkoa como motor que impulse el desarrollo y la transformación del territorio. En concreto el Objetivo 13 del Plan Estratégico recoge lo siguiente: «Afianzar una relación abierta con la ciudadanía, y abrir nuevos cauces de participación y comunicación».

Incorporar la participación ciudadana en la gestión pública contribuye a generar esa confianza al fortalecer a los gobiernos, legitimar las políticas públicas, integrar la pluralidad social, favorecer la inclusión de los intereses sociales en la agenda pública, involucrar a la ciudadanía en los procesos de ordenación de la vida pública y fortalecer la función de la sociedad civil.

Conscientes de la importancia del papel que los ayuntamientos desempeñan como nivel institucional más próximo a la ciudadanía, la Diputación Foral de Gipuzkoa, deseando promover y facilitar dicha labor, viene colaborando durante los años precedentes con las entidades locales a fin de apoyar financieramente procesos de participación ciudadana impulsados en el ámbito municipal.

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 30 de enero de 2018, aprobó las bases reguladoras de las subvenciones para fomentar la participación ciudadana en los municipios de Gipuzkoa, destinadas a ayuntamientos. De conformidad con lo establecido en la base octava de dichas bases reguladoras, el procedimiento de concesión se iniciará mediante convocatoria aprobada por el órgano competente, que será publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Valorando positivamente la experiencia en lo que al impulso de una cultura de participación ciudadana en la vida política e institucional municipal se refiere, y respondiendo a la demanda que desde los ámbitos local y comarcal ha recibido, la Diputación Foral de Gipuzkoa considera necesario continuar con la concesión de dichas subvenciones. Por ello, mediante el presente acuerdo se aprueba la convocatoria correspondiente al ejercicio 2019 para el otorgamiento de subvenciones con el fin de fomentar la participación ciudadana en los municipios de Gipuzkoa.

La presente línea de subvención está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2017-2019 (PES) aprobado por el Consejo de Gobierno Foral en sesión de 26 de julio de 2017.

En su virtud, el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta del diputado foral del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad, previa deliberación,

EK\CV GAO-I-2019-00211

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onartzea Gipuzkoako udalerrietan herritarren partaidetza sustatzeko diru laguntzen 2019ko deialdia, erabaki honen eranskin gisa doana.

*Bigarren.* Baimentzea hirurehun eta berrogeita hamar (350.000,00) euroko gastua 2019ko deialdiari aurre egiteko, aurrekontuko kontu sail hauen kargura:

a) 175.000,00 euro 1.0301.020.461.01.01.2019 kontu sailaren kargura.

b) 175.000,00 euro 5.0301.020.461.01.01.2020 kontu sailaren kargura.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2019ko urtarrilaren 14a.—Juan José de Pedro Alonso, Departamentuko idazkari teknikoa. (211)

ERANSKINA

*Gipuzkoako udalerrietan herritarren partaidetza sustatzeko diru-laguntzen 2019ko deialdia.*

*1. Objektua eta xedea.*

Deialdi honen objektua da Gipuzkoako udalei herritarren parte hartzea sustatzeko diru-laguntzak emateko prozedura hastea.

Diru-laguntza hauen xedea da Gipuzkoako udalerriak diruz laguntzea herritarrek esparru publikoaren kudeaketan eta erabakian parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko, batetik, eta herritarren parte hartzea sustatzeko duten gaitasuna indartzeko, bestetik.

*2. Onuradunak.*

Diru laguntzen onuradun izango dira Gipuzkoako udalak, baldin eta martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera onuradun izatea galarazten dieten egoeraren batean ez badaude. Hori egiaztatzeko udalaren legezko ordezkariak izenpetutako erantzukizunezko adierazpen bat aurkeztu behar da.

*3. Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.*

1. Diru-laguntza hauek emateko prozedura bideratzea eta eskaerak aztertzea Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzari eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuari dagozkie.

2. Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatua izango da diru-laguntzak emateko organo eskuduna.

ACUERDA

*Primero.* Aprobar la convocatoria de 2019 de las subvenciones para impulsar la participación ciudadana en los municipios de Gipuzkoa, que se acompaña al presente acuerdo como anexo.

*Segundo.* Autorizar un gasto de trescientos cincuenta mil (350.000,00) euros para hacer frente a la convocatoria del año 2019, con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

a) 175.000,00 euros con cargo a la partida presupuestaria 1.0301.020.461.01.01.2019.

b) 175.000,00 euros con cargo a la partida presupuestaria 5.0301.020.461.01.01.2020.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 14 de enero de 2019.—El secretario técnico del Departamento, Juan José de Pedro Alonso. (211)

ANEXO

*Convocatoria 2019 de las subvenciones para impulsar la participación ciudadana en los municipios de Gipuzkoa.*

*1. Objeto y finalidad.*

Es objeto de la presente convocatoria iniciar el procedimiento de concesión de subvenciones a los ayuntamientos de Gipuzkoa en materia de fomento de la participación ciudadana.

La finalidad de estas subvenciones es colaborar financieramente con los municipios de Gipuzkoa al objeto, por una parte, de garantizar el derecho de la ciudadanía de participar en la gestión y decisión de lo público, y por otra, de reforzar la capacidad de los ayuntamientos para fomentar dicha participación.

*2. Entidades beneficiarias.*

Tendrán la consideración de entidades beneficiarias los ayuntamientos de Gipuzkoa, en quienes no concurra ninguna de las circunstancias impeditivas de alcanzar la condición de beneficiaria de las previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que se acreditará mediante una declaración responsable suscrita por la persona que represente legalmente al ayuntamiento.

*3. Órganos competentes para la instrucción y resolución del procedimiento.*

1. La instrucción del procedimiento de concesión, así como el análisis de las solicitudes corresponderán a la Dirección Foral de Participación Ciudadana y al Servicio de Participación Ciudadana.

2. El diputado foral del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad será el órgano competente para resolver la concesión de las subvenciones.

EK\CV GAO-I-2019-00211

*4. Oinarri arautzaileak.*

Deialdi honetako diru-laguntzak arautuko dituzten oinarriak 2018ko urtarrilaren 30eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bitartez onartu ziren (2018ko otsaileko 7ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 27. zb.).

*5. Finantzaketa.*

1. Emango diren diru laguntzen kopurua hirurehun eta berrogeita hamar mila euro (350.000 €) izango da guztira, eta aurrekontuko kontu sail hauen kontura ordainduko da:

a) 175.000 euro 1.0301.020.461.01.01.2019 kontu sailaren kargura.

b) 175.000 euro 5.0301.020.461.01.01.2020 kontu sailaren kargura.

2. Aurreko puntuan aipatu kopuru hori kreditu gehigarri batez handitu ahal izango da deialdia ebatzi aurretik eta beste deialdi bat egiteko beharrik gabe. Kreditu hori zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak baimendu behar du, aurretik dagokion aurrekontu aldaketa onartuta, halakorik egin beharrik balego.

Kopuru gehigarri hori eraginkorra izateko baldintza da dirulaguntza ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri dagoela adieraztea.

*6. Diru-laguntzen zenbatekoa eta gastu hautagarrien xehetasunak.*

1. Diru-laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da, kontuan izanda herritarren parte hartzeari dagokionez aurkeztutako prozesuaren kalitatea.

Ondoren aipatzen den segmentazioaren arabera, dirulaguntzak zenbateko hauetakoak izango dira gehienez:

*4. Bases reguladoras.*

Las bases reguladoras relativas a las subvenciones objeto de esta convocatoria se aprobaron por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 30 de enero de 2018 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 27, del 7 febrero 2018).

*5. Financiación.*

1. La cuantía total de las subvenciones a conceder será de trescientos cincuenta mil euros (350.000,- €), con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

a) 175.000 euros con cargo a la partida presupuestaria 1.0301.020.461.01.01.2019.

b) 175.000 euros con cargo a la partida presupuestaria 5.0301.020.461.01.01.2020.

2. La cuantía total indicada en el apartado anterior podrá incrementarse con un crédito adicional previamente a la resolución de la convocatoria y sin necesidad de una nueva convocatoria. Dicho crédito adicional será autorizado por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía, previa aprobación, en su caso, de la modificación presupuestaria que proceda.

La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención.

*6. Cuantía de las subvenciones y detalle de los gastos elegibles.*

1. El importe de la subvención se fijará con arreglo a la documentación aportada por la entidad solicitante, teniendo en cuenta la calidad del proceso presentado en relación a la participación ciudadana.

Los importes máximos de las subvenciones serán los siguientes, de acuerdo con la segmentación que se señala a continuación:

| *Esparruak tamainaren arabera.Biztanle kopurua./ Según el tamaño de los segmentos. Número de habitantes* | *Foru Aldundiaren diru-laguntza gehienez / Ayuda máxima de la Diputación Foral.* | | *Diru laguntzen banaketa multzoka / Reparto de las subvenciones por grupos* |
|---|---|---|---|
| | *Prozesuaren aurrekontuaren ehunekoa/ Porcentaje del presupuesto del proceso* | *Gehieneko diru kopurua/ Cantidad máxima* | |
| < 2.000 | % 80 | 8.000 € | 100.000 € |
| 2.001 – 10.000 | % 70 | 10.000 € | 115.000 € |
| > 10.001 | % 60 | 12.000 € | 135.000 € |

Diru-laguntzaren zenbatekoa oinarri arautzaileen 11. puntuan jasotzen diren irizpideen aplikaziotik aterako da.

2. Halaber, taldean aurkeztutako prozesuek irizpide berdinen arabera jaso ahal izango dute diru-laguntza, taldeko udalerri bakoitzaren biztanle kopurua batuta.

3. Dena dela, azkenik ordaindutako diru-laguntza proportzionala izango da aurrekontu konputagarriari buruz aurkeztutako justifikazioarekiko.

*7. Emateko prozedura.*

Diru-laguntzak norgehiagoka bidez emango dira. Ondorioz, ezarritako balorazio irizpideen arabera, diruz lagundu nahi diren esperientzien kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatzeko moduko eskaera kopurua hautatuko da.

*8. Balorazio irizpideak.*

Eskaerak baloratzeko irizpideak oinarri arautzaileen 9. puntuan jasotzen dira.

Para la cuantificación de la subvención se aplicarán los criterios establecidos en el apartado 11 de las bases reguladoras.

2. Asimismo, la subvención que recibirán los procesos presentados en agrupación se regirán por los mismos criterios, sumando los habitantes de los municipios que se agrupan.

3. No obstante, la subvención finalmente abonada será proporcional a la justificación presentada en relación con el presupuesto computable.

*7. Procedimiento de concesión.*

El procedimiento de concesión de las subvenciones se efectuará en régimen de concurrencia competitiva, de manera que tan sólo se seleccionará, conforme a los criterios fijados, un número de solicitudes que asegure la calidad y la viabilidad de las experiencias subvencionadas.

*8. Criterios de valoración.*

Los criterios de valoración de las solicitudes son los establecidos en el apartado 9 de las bases reguladoras.

EK\CV GAO-I-2019-00211

Proiektu bat baliozkotzat jotzeko, gutxienez 50 puntu lortu behar ditu.

*9. Eskaerak aurkezteko epea eta modua.*

1. Eskaerak aurkeztu daitezke deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta epea 2019ko otsailaren 22an amaituko da.

2. Eskaera, eta harekin aurkeztu behar den dokumentazioa, internet bidez aurkeztu behar dira nahitaez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus), diru laguntzen atarian, arau hauetan ezarritakoari jarraikiz: irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duena; eta Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko diputatuaren otsailaren 22ko 154/2016 Foru Agindua, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko diru laguntzei buruzko espedienteen hainbat tramite bitarteko elektronikoen bidez egiteko obligazioa ezartzekoa. Horretarako, sinadura elektronikoa edo pasahitza erabiliko dira.

Eskaerak egiteko eta ondoren zuriketak aurkezteko –jarduerari buruzko tarteko eta amaierako txostenak– erabiliko diren formularioak aipatutako egoitza elektronikoan egongo dira, dirulaguntza hauei dagokien atalean; eta ezinbestekoa izango da formulario horiek betetzea. Ez dira aintzat hartuko formularioak bete gabe aurkezten diren eskaerak eta zuriketak. Nolanahi ere, formularioetan nahi den informazio osagarri guztia sartzeko atal bat dago.

Eskaera egiteko eredua deialdi honetan eransten da.

Deialdiaren informazioa eskuragarri egongo da Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

*10. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.*

Eskaerak egiteko, egoitza elektronikoan, diru laguntzen deialdi honi dagokion atalean, dauden formulario guztiak osatu beharko dira:

a) Herritarren partaidetzarako prozesuaren memoria.

b) Prozesuaren aurrekontu xehatua, diruz lagundu daitezkeen gastuak zehatz-mehatz banakatuta.

c) Entitate eskatzailearen adierazpena, xede berarentzat estatuko edo nazioarteko administrazio edo ente publiko nahiz pribatutatik jaso edo haietara eskatutako diru-laguntza, diru sarrera edo baliabideei buruzkoa, orain eskatutakoekin bateraezinak direnak azalduz. Aipatutako adierazpena izenpetzeko aukera eskaera elektronikoan jasota dago.

Entitate eskatzaileak ez badu jaso halako diru-laguntza, diru sarrera edo baliabiderik, edo ez badu haietarako eskaerarik egin, hori ere adierazpenean azaldu behar du.

d) Erantzukizunezko adierazpena (eskaera elektronikoan jasotakoa), martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzenak, onuradun izateko 12. artikuluan ezartzen dituen debekuetan sartuta ez egoteari buruzkoa.

e) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak. Eskatzaileak adierazpen bat izenpetu dezake: berariazko baimena emateko ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek behar diren datuak zuzenean Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren Idazkaritzaren esku utz ditzaten. Aipatutako adierazpena izenpetzeko aukera eskaera elektronikoan jasota dago.

Para aceptar como válido un proyecto, éste debe obtener al menos 50 puntos.

*9. Plazo y forma de presentación de solicitudes.*

1. Las solicitudes podrán presentarse a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y el plazo de presentación finalizará el día 22 de febrero de 2019.

2. La solicitud y la documentación complementaria deberán presentarse obligatoriamente vía Internet, a través del portal de subvenciones ubicado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, (https://egoitza.gipuzkoa.eus), en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, y la Orden Foral 154/2016, de 22 de febrero, del diputado de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad, por la que se regula la obligación de realizar por medios electrónicos determinados trámites de los expedientes de subvenciones del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad. A tal efecto, se utilizará la firma electrónica o la clave operativa.

Los formularios que se utilizarán para realizar las solicitudes así como para presentar las justificaciones posteriores –informe intermedio y de final de actuación– estarán disponibles en el apartado correspondiente a estas subvenciones en la citada sede electrónica, y será imprescindible rellenarlos. No se tomarán en consideración aquellas solicitudes/justificaciones que se presenten sin cumplimentar los formularios. En todo caso, los formularios contemplan un apartado para incluir cuanta información adicional se desee.

El modelo de solicitud se adjunta en el anexo de esta convocatoria.

La información de la convocatoria estará disponible en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

*10. Documentación a presentar con la solicitud.*

Para formalizar la solicitud deberán cumplimentarse todos los formularios que figuran en la sede electrónica en el apartado correspondiente a esta convocatoria de subvenciones:

a) Memoria del proceso de participación ciudadana.

b) Presupuesto detallado del proceso, con el desglose detallado de los gastos subvencionables.

c) Declaración de las subvenciones, ingresos o recursos que la entidad solicitante hubiese solicitado u obtenido para la misma finalidad, procedente de cualquier administración o ente público o privado, estatal o internacional, indicando las subvenciones que resulten incompatibles con las solicitadas. La opción de firmar dicha declaración se incluye en la solicitud electrónica.

En caso de que la entidad solicitante no hubiese solicitado u obtenido tales subvenciones, ingresos o recursos, deberá indicarlo así en la declaración.

d) Declaración responsable, que se incluye en la solicitud electrónica, de no hallarse incursa en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de entidad beneficiaria establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

e) Certificados acreditativos de encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. A este respecto, se podrá suscribir una declaración en la que se manifieste el consentimiento expreso a que las entidades que deben expedir tales certificados cedan directamente los datos que deban figurar en los mismos a la Secretaría del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad. La opción de firmar dicha declaración se incluye en la solicitud electrónica.

EK\CV GAO-I-2019-00211

Ez dira aintzat hartuko formularioak bete gabe aurkezten diren eskaerak eta zuriketak. Nolanahi ere, formularioetan nahi den informazio osagarri guztia sartzeko atal bat dago.

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak aurkeztutako prozesuak behar bezala ebaluatzeko eta erabakitzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio gehigarri oro eskatu ahal izango du.

*11. Ebazteko eta jakinarazteko epea.*

1. Ebazpena eman eta argitaratzeko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2. Onuradunei adieraziko zaie zein den diru-laguntzaren gehienezko zenbateko zehatza, eta gastu konputagarrien aurrekontua.

*12. Diruz lagundu daitezkeen jarduketei ekiteko epea.*

1. Diru-laguntzaren xede diren jarduerak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitakoak izango dira.

2. Jarduerak hasi direla egiaztatzeko, udalek parte-hartze prozesuaren aurrerapen mailaren txostena eta behin betiko kronograma aurkeztu behar dituzte. Aurkezteko epea: 2019ko irailaren 20a.

*13. Erakunde onuradunen betebehar eta konpromisoak.*

Parte-hartze prozesuaren aurrerapen mailaren txostena eta behin betiko kronograma aurkeztea. Aurkezteko epea: 2019ko irailaren 20a. Txosten horren helburua da lehenbailehen jakitea erakunde onuradunen batek uko egingo dion diru-laguntzari, diru-laguntza hori aldeko kalifikazioa jaso baina aurrekontua amaitu izanagatik banaketatik kanpo utzitako proiektuei emateko.

*14. Diru-laguntzen ordainketa.*

Onartutako diru-laguntzak honela ordainduko dira:

— Diru-laguntzaren % 50, aurrerakin moduan, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa, onuradunek aurkeztu behar duten prozesuaren aurrerapen mailaren txostena eta behin betiko kronograma jasotzen direnean. Aurkezteko epea: 2019ko irailaren 20a. Ordainketa hori bermatzeko ezinbestekoa da txosten hori aurkeztea. Formularioa eta gainerako dokumentazioa egoitza elektronikoan eskuratuko da.

— Beste % 50 laguntzaren xede diren jarduerak bukatzen direnean. Aurrez, dena den, 16. oinarrian zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da. Aurkezteko epea: 2020ko martxoaren 20.

*15. Gauzatzeko eta zuritzeko epea.*

Prozesuak gauzatzeko eta zuritzeko mugaeguna 2020ko martxoaren 20 izango da.

*16. Jakinarazpenak.*

Deialdiaren ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du eta, argitalpen egunaren biharamunetik hasita, jakinarazpena egintzat joko da lege ondorio guztietarako.

No se tomarán en consideración aquellas solicitudes/justificaciones que se presenten sin cumplimentar los formularios. En todo caso, los formularios contemplan un apartado para incluir cuanta información adicional se desee.

La Dirección Foral de Participación Ciudadana del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad podrá solicitar cuanta información adicional entienda necesaria para la correcta evaluación y resolución de los procesos que se presenten.

*11. Plazo de resolución y notificación.*

1. El plazo máximo para dictar y publicar la resolución que corresponda será de dos meses, a contar desde el día siguiente a la fecha de finalización del plazo de presentación de las solicitudes.

2. A las entidades beneficiarias se les informará del importe máximo de la subvención y del presupuesto de los gastos computables.

*12. Plazo de inicio de las actuaciones subvencionables.*

1. Serán objeto de subvención aquellas actuaciones iniciadas a partir del 1 de enero de 2019.

2. Para acreditar el comienzo de las actuaciones, los ayuntamientos deberán presentar el informe del nivel de avance y el cronograma definitivo del proceso participativo. Plazo de presentación: 20 de septiembre de 2019.

*13. Obligaciones y compromisos de las entidades beneficiarias.*

Presentar el informe del nivel de avance y el cronograma definitivo del proceso participativo. Plazo de presentación: 20 de septiembre de 2019. Es objetivo de este informe conocer lo antes posible eventuales renuncias por parte de las entidades beneficiarias, de modo que dichas ayudas puedan ser asignadas a proyectos que, habiendo recibido la calificación favorable, hubiesen quedado fuera del reparto por haberse agotado el presupuesto disponible.

*14. Pago de las subvenciones.*

Las subvenciones concedidas serán abonadas del modo siguiente:

— Un 50 % de la subvención, en concepto de anticipo, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones subvencionadas, a la recepción del informe del nivel de avance y cronograma definitivo que habrán de presentar los beneficiarios. Plazo de presentación: 20 de septiembre 2019. Para garantizar dicho cobro será necesario presentar el citado informe. El formulario se encontrará, al igual que el resto de la documentación, en la sede electrónica.

— El 50 % restante a la conclusión de las actuaciones objeto de la subvención, previa presentación de la documentación que se especifica en la base 16.ª Plazo de presentación: 20 de marzo de 2020.

*15. Plazo de ejecución y justificación.*

El plazo máximo de ejecución y justificación de los procesos será el 20 de marzo de 2020.

*16. Notificaciones.*

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015 de 1 de octubre sobre Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

EK\CV GAO-I-2019-00211

**1 Herritarren partaidetza sustatzeko diru laguntzak lurraldeko udalei**
**1 Subvenciones a los ayuntamientos del territorio para el fomento de la participación ciudadana**

## ESKAERA ORRIA / HOJA DE SOLICITUD

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Sarrera erregistroa**<br>**Registro de entrada** | | Data<br>Fecha | | Zenbakia<br>Número | |
| **Espedientea**<br>**Expediente** | | **Data**<br>**Fecha** | | **Sarrera Kodea**<br>**Código** | |
| **Egoera**<br>**Situación** | | **Fasea**<br>**Fase** | | | |

### ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL SOLICITANTE

| | |
|---|---|
| **Eskatzailearen izena**<br>**Nombre solicitante** | **H / G:** **M / E:** |
| **IFZ/IFK**<br>**NIF/CIF** | **Posta**<br>**Kodea** |
| **Helbidea**<br>**Dirección** | **Lurralde historikoa**<br>**Territorio histórico** |
| **Herria**<br>**Localidad** | **Telefonoak**<br>**Teléfonos** |
| **Kontu korrontea**<br>**Cta Cte** | **Faxa**<br>**Fax** |
| **Helbide elektronikoa**<br>**Correo electrónico** | |

### HARREMANETAKO PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA DE CONTACTO

| | |
|---|---|
| **Pertsonaren izena**<br>**Nombre de la persona** | **H / G:** X **M / E:** |
| **IFK / CIF** | **Posta**<br>**Kodea** |
| **Helbidea**<br>**Dirección** | **Lurralde historikoa**<br>**Territorio histórico** |
| **Herria**<br>**Localidad** | **Telefonoa**<br>**Teléfono** |
| **Telefonoa**<br>**Teléfono** | **Faxa**<br>**Fax** |
| **Helbide elektronikoa**<br>**Correo electrónico** | |

EK\CV GAO-I-2019-00211

## ERAGITEKO GAKO EDO ZIURTAGIRI DIGITALAREN IDENTIFIKAZIOKO DATUAK
## DATOS IDENTIFICACIÓN CLAVE OPERATIVA O CERTIFICADO DIGITAL

**Izena**
**Nombre**

**IFZ/IFK**
**NIF**

**Norbere izenean / Nombre propio**

**GIPUZKOATARIAren bidezko ordezkaritza / Representación GIPUZKOATARIA**

**Ustezko ordezkaritza / Representación presunta**

### Konkurrentzia deklarazioa
### Declaración de concurrencia

Aitortzen dut ez ni ezta nik ordezkatzen dudan entitatea ere ez gaudela sartuta 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeratan. Aldi berean, entitatea ez dago 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak aurreikusten dituzten onuradun izateko debeku egoeraren batean.

Declaro que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Asimismo, tampoco se encuentra sometida a ninguno de los supuestos de prohibición para ser beneficiaria de subvenciones previstos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero de 2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

### Komunikazio onartzea
### Aceptación de comunicaciones

Onartzen dut eskaerari buruzko komunikazioetarako posta elektronikoa lehenestea. Nire gain hartzen dut eman dizuedan helbide elektronikoaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko ardura.

Acepto que las comunicaciones sobre la solicitud se hagan preferentemente por correo electrónico. Me responsabilizo del correcto funcionamiento de la dirección aportada.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Erakunde edo pertsona eskatzaileak baimena ematen dio diru laguntzaren Departamentu kudeatzaileari organo lagatzailearen ondorengo datuen kontsulta egin dezan: / La entidad o persona solicitante da su consentimiento al departamento foral gestor de la subvención para que consulte del órgano cedente los datos de:** | | | |
| **Zerga betebeharrak egunean dituela / Cumplimiento de las obligaciones tributarias :** | | **Ez, agiria eransten da / No, se adjunta certificado** | |
| **Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituela / Cumplimiento de las obligaciones con la Seguridad Social** | | **Ez, agiria eransten da / No, se adjunta certificado** | |

**PROIEKTU HONEK ESKATUTAKO/JASOTAKO BESTELAKO LAGUNTZAK**
**OTRAS AYUDAS SOLICITADAS/CONCEDIDAS POR EL MISMO PROYECTO**

☐ Ditu / Tiene ☐ Ez ditu / No tiene

Entitate eskatzaileak honako diru laguntzak jaso edota eskatu ditu, gaur arte, proiektu hori bera laguntzeko. Era berean, entitate horrek konpromisoa hartzen du herri erakunde publikoetan nahiz pribatuetan, gaurtik hasi eta zerga ekitaldia amaitu bitartean, aurkezten duen diru laguntza eskaera ororen berri emateko.

La entidad solicitante, hasta ahora, además de la presente solicitud de ayudas, ha presentado y/o recibido las siguientes ayudas por el mismo proyecto. La entidad deberá comunicar cuantas solicitudes de ayuda presente en cualquier organismo público o privado a partir de la fecha de hoy hasta finalizar el presente ejercicio.

| Erakundea / Organismo | Deialdia / Convocatoria | Onartze data / Fecha de aprobacion | Zenbatekoa / Importe | Onartutako diru-laguntza / Subvención concedida |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | **GUZTIRA/ TOTAL** | | |

EK\CV GAO-I-2019-00211

PROIEKTUAK / PROYECTOS

Izena
Denominación

Proiektuaren azalpena
Descripción proyecto

Oharrak
Observaciones

______________________, 201___ko________________(a)ren_______(a)

En__________________________a______de______________de 201___

Izptua. (Sinadura eta zigilua)
Fdo.: (Firma y sello)

EK\CV GAO-I-2019-00211

# PROIEKTUAREN ESKAERA TXOSTENA / *INFORME SOLICITUD DE PROYECTO*

**LAGUNTZA MOTA. Udalek herritarren partaidetzarako sustatutako prozesuak**
*TIPO DE AYUDA. Procesos para el fomento de la participación ciudadana impulsados por los ayuntamientos*

## 1. DATU OROKORRAK / *DATOS GENERALES* *

### 1. Udalaren datuak / *Datos del ayuntamiento*

| | |
|---|---|
| **Izena /** *Nombre:* | **IFZ /** *NIF:* |
| **Kontu korrontea (IBAN+20 digitu) /** *Cuenta corriente (IBAN+20 dígitos):* | |
| **Helbidea /** *Domicilio:* | |
| **Herria /** *Municipio:* | **PK /** *CP:* |
| **Tfn:** | **e-posta** / *e-mail:* |

### 2. Alkatearen datuak (eskaera udal taldean aurkezten denean, udal taldearen ordezkariak bete behar du)/ *Datos del alcalde o alcaldesa (cuando la solicitud se presente en agrupación de ayuntamientos, este apartado lo rellenará el alcalde o alcaldesa representante)*

| | |
|---|---|
| **Izen-abizenak /** *Nombre y apellidos:* | |
| **Helbidea /** *Domicilio:* | |
| **Herria /** *Municipio:* | **PK /** *CP:* |
| **Tfn:** | **e-posta** / *e-mail:* |

### 3. Udal taldearen datuak (atal hau, eskaera udal taldean aurkezten denean bete behar da bakarrik)/ *Datos de la agrupación de ayuntamientos (rellenar sólo cuando la solicitud se presente en agrupación de ayuntamientos)*

| | |
|---|---|
| **Herria /** *Municipio:* | **PK /** *CP:* |
| **Herria /** *Municipio:* | **PK /** *CP:* |
| **Herria /** *Municipio:* | **PK /** *CP:* |
| **Herria /** *Municipio:* | **PK /** *CP:* |
| **Herria /** *Municipio:* | **PK /** *CP:* |
| **Herria /** *Municipio:* | **PK /** *CP:* |
| **Herria /** *Municipio:* | **PK /** *CP:* |

*** Udalak taldean aurkezten direnean, taldearen ordezkariak, taldeak aurkeztutako prozesuari buruzko eskaera txosten osoa bete beharko du. /** *Cuando los ayuntamientos se presenten en agrupación, la persona representante de la agrupación deberá rellenar el informe de solicitud completo del proceso presentado por la agrupación.*

EK\CV GAO-I-2019-00211

## 4. Udalak aurretik egindako parte-hartze prozesuetan duen esperientzia / *Experiencia del ayuntamiento en procesos de participación anteriores.*

**Atal honetan zehaztu beharreko informazioa: udalak, aurretik egindako parte-hartze prozesuetan duen esperientziaren aipamen laburra. /** *Información a detallar en este apartado: breve reseña de la experiencia del ayuntamiento en procesos de participación anteriores.*

---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------



EK\CV GAO-I-2019-00211

## 2. PROIEKTUAREN INFORMAZIOA / *INFORMACIÓN DEL PROYECTO*

### 1. Proiektuaren izena / *Denominación del proyecto*

### 2. Proiektuaren arduraduna / *Persona responsable del proyecto*

**Izen-abizenak** / *Nombre y apellidos*

**Kargua/***Puesto*

**Telefonoa** / *Teléfono*

**e-posta** / *e-mail*

### 3. Parte-hartze prozesua proposatzen den proiektuaren garrantzia eta izaera estrategikoa / *Importancia y carácter estratégico del proyecto para el que se plantea el proceso de participación.*

**Atal honetan zehaztu beharreko informazioa: aurkezten den prozesua legealdiko programa edo kudeaketa planaren barruan txertatzen da? Zein programatan edo planetan? Estrategikoa bada, zergatik? /** *Información a detallar en este apartado: ¿el proceso se inserta en el programa de legislatura o plan de gestión? ¿En qué programa o plan? Si es estratégico, ¿por qué?*

-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

**Proiektuaran lehentasuna /** *Prioridad del proyecto:*

☐ **1. mailakoa** / *Prioritario*   ☐ **2. mailakoa** / *Secundario*

EK\CV GAO-I-2019-00211

**4. Parte hartze prozesuaren laburpen exekutiboa, gehienez orri bat** / *Resumen ejecutivo del proceso participativo, máximo un folio*

EK\CV GAO-I-2019-00211

## 5. Proiektuaren azalpena / *Descripción del proyecto*

**Atal honetan zehaztu beharreko informazioa: helburuak, faseak, ekintzak, egitura, zeharkako politiken tratamendua prozesuan, kronograma. Irizpideen zerrenda (ikusi oinarri arautzaileen 9. atala: Balorazio irizpideak):**

a) Esperientziaren diseinuan eta inplementazioan planteatutako estrategia metodologikoa.
b) Gobernu ona. Berrikuntza sistematikoa, gobernatzeko moduetan eta zerbitzuetan, irekitasunaren eta balio publikoaren bidean aurrera egitea ahalbidetzen duen ingurunea sortuz.
c) Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak aldez aurretik definitutako helburu eta lerro estrategikoekin bat datozen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 aldirako Kudeaketa Plan Estrategikoaren esparruan sar daitezkeen eremu estrategikoetan esku hartzea.
d) Sustatzen den parte hartze prozesua ebaluatzeko, kalitate demokratikoko irizpideen proposamena.

***Información a detallar en este apartado: objetivos, fases, acciones, estructura, gestión de las políticas transversales en el proceso, cronograma. Relación de criterios (ver apartado 9º de las bases reguladoras: criterios de valoración):***

a) Estrategia metodológica planteada en el diseño e implementación de la experiencia.
b) Buen Gobierno. Innovación sistemática en las formas de gobierno y en la prestación de servicios creando un entorno que facilite el avance de las mismas en clave de apertura y de aportación de valor público.
c) Intervención en ámbitos estratégicos cuyo diseño, desarrollo y resultados guarden coherencia con los objetivos y líneas estratégicas previamente definidos por la Dirección de Participación Ciudadana y que puedan ser contemplados en el marco del Plan Estratégico de Gestión 2015-2019 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
*d)* Propuesta de criterios de calidad democrática para evaluar el proceso participativo que se promueve.

------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------


EK\CV GAO-I-2019-00211

## 6. Zeharkako politiken tratamendua / *Gestión de las políticas transversales*

**Oinarri arautzaileen 9. atalak 18 punturaino baloratzen ditu. Eskaera honetan aipamenik egiten ez bada, 0 puntu jasoko ditu atal honetan. /** *En el apartado 9º de las bases reguladoras, se valora con hasta 18 puntos. Si en esta solicitud no se hace ninguna mención, obtendrá 0 puntos en este apartado.*

---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

**Euskararen erabilera sustatzea:** 6 punturaino**. /** ***Que promueva la utilización del euskera****: hasta 6 puntos.*

**Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea:** 6 punturaino**. /** ***Que promueva la igualdad entre hombres y mujeres****: hasta 6 puntos.*

**Aniztasunarekiko diskriminazio eza sustatzea:** 6 puntu gehienez **/** ***Que promueva la no-discriminación hacia la diversidad:*** *hasta 6 puntos.*

EK\CV GAO-I-2019-00211

**7. Kanpoko aholkularitza kontratatuz gero, aholkularitzaren datuak /** *En el caso de contratar una asesoría externa, datos de la asesoría*

| | | |
|---|---|---|
| **Izena /** *Nombre:* | | **IFZ /** *NIF:* |
| **Helbidea /** *Domicilio:* | | |
| **Herria /** *Municipio:* | | **KP /** *CP***:** |
| **Tfn:** | **e-posta** / *e-mail:* | **Fax:** |
| **Aholkularitza enpresaren esperientzia herritarren partaidetzako prozesuetan /** *Experiencia de la consultora en procesos de participación ciudadana* | | |
| | | |

## 8. Aurrekontua / *Presupuesto*

| **Gastuaren kontzeptua(1) /** *Concepto del gasto(1)* | **2019ko urtarriletik 2020ko martxora** |
|---|---|
| | **€** |
| | **€** |
| | **€** |
| | **€** |
| | **€** |
| | **€** |
| | **€** |
| | **€** |
| **Gastuak guztira** / *Total gastos* | **€** |

| **Diru-sarreraren kontzeptua /** *Concepto del ingreso* | |
|---|---|
| **Aurreikusitako diru-laguntza (GFA) /** *Subvención prevista (DFG)* | **€** |
| **Bestelako babeslearenak /** *Otros patrocinios* | **€** |
| **Udalaren ekarpena(2) /** *Aportación del ayuntamiento(2)* | **€** |
| **Diru-sarrerak guztira /** *Total ingresos* | **€** |

| **Zk. /** *Nº* | **Banaketa taula /** *Tabla de desglose*<br>**Taldean aurkezten diren proiektuen kasuan, kide bakoitzaren ekarpenaren banaketa /** *En los proyectos presentados en agrupación, desglose de la aportación de cada integrante* | **Kopurua/** Importe |
|---|---|---|
| 1 | | **€** |
| 2 | | **€** |
| 3 | | **€** |
| 4 | | **€** |
| | **Azpitotala /** *Subtotal* | **€** |

(1) **Diru-laguntza jasotzen bada, aurrekontu konputagarriaren % 100 zuritu beharko da. Diru-laguntzak 2020ko martxoaren 20a bitarteko gastuak finantzatuko ditu. /** *En caso de recibir la subvención, se deberá justificar el 100% del presupuesto computable. La subvención financiará los gastos que se produzcan hasta el 20 de marzo de 2020.*

(2) **Taldean aurkeztutako proiektuen kasuan, atal honetan ekarpen guztien zenbatekoa adierazi behar da. Kide bakoitzaren ekarpenaren xehetasuna banaketa taulan adierazi behar da. /** *En el caso de proyectos presentados en agrupación, se indicará en este apartado la suma de todas las contribuciones. El detalle de la aportación de cada integrante se señalará en la tabla de desglose.*

EK\CV GAO-I-2019-00211